

AUTO ETA MOTORREN ASEGURUAK: HAMAR ASEGURU ETXEK ESKAINTZEN DITUZTEN PREZIOAK ETA ESTALDURAK AZTERTU DITUGU, 540 AURREKONTU ESKATU ONDOREN

- ARRISKU OROTAKO POLIZA, FRANKIZIARIK GABEA, 6.000 EUROTIK GORA KOSTA DAKIOKE 18 URTEKO GAZTE BATI
- BEHAR-BEHARREZKO ESTALDURA EMATEN DUTEN ASEGURUEN PREZIOA ASKO ALDA DAITEKE KONPAINIATIK KONPAINIARA: BIKOIZTU ETA HIRUKOIZTU ERE EGIN LITEKE
- ASEGURU ETXERIK GARESTIENEK ESKAINTZEN DITUZTE ESTALDURARIK ONENAK

Hiri batetik bestera,
bi halakotu egin
daiteke autoaren
aseguru berbera



G

MOTOR ETA MOTOZIKLETEN ASEGURUEN BATEZ BESTEKO PREZIOAK, POLIZA MOTAREN ARABERA (CONSUMER EROSKI-K egindako azterketa)

Gidari mota	Hirugarrenen asegurua (urteko kuota)	Hirugarrenen aseguru osatua (urteko kuota)
1 mota ⁽¹⁾	824	Ez digute eman
2 mota ⁽²⁾	197	237

(1) 18 urteko gaztea, ia esperientziarik ez duena eta ziklomotorren aseguru lehenengoz egin nahi duena. (2) 35 urteko gaztea, ezkondua, bost urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrrik eduki bost urte horietan, eta 125 cc-ko motorra dauka.

AUTO-ASEGURUEN BATEZ BESTEKO PREZIOAK, POLIZA MOTAREN ARABERA (CONSUMER EROSKI-K egindako azterketa)

Gidari mota	Hirugarrenen asegurua (urteko kuota)	Hirugarrenen aseguru osatua (urteko kuota)	Arrisku orotakoa, frankizia gabe (urteko kuota)	Arrisku orotakoa, frankiziaduna (urteko kuota)
1 mota ⁽¹⁾	1.487	1.783	4.772	3.189
2 mota ⁽²⁾	449	582	1.286	921
3 mota ⁽³⁾	390	442	1.009	638
4 mota ⁽⁴⁾	503	525	1.213	841
5 mota ⁽⁵⁾	477	515	1.258	773
6 mota ⁽⁶⁾	412	483	1.105	710
7 mota ⁽⁷⁾	493	507	1.157	710

(1) 18 urteko gaztea, ezkongabea, ia esperientziarik ez duena eta ibilgailu txiki batentzat aseguru egin nahi duena lehen aldiz. (2) 25 urteko emakumea, ezkongabea, bi urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrrik eduki bi urte horietan, eta auto txiki bat dauka. (3) 30 urteko emakumea, ezkongabea, bost urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrrik eduki bost urte horietan, eta ibilgailu konpaktu bat gidatzen du. (4) 30 urteko emakumea, ezkondua, bost urteko esperientzia duena, aseguru konpainia aldatu nahi duena eta aseguru-jabe bezala agertu (une horretan, familiako kide batekin partekatzen du poliza). Ez du zigorrrik eduki bost urte horietan, eta ibilgailu konpaktu bat gidatzen du. (5) 40 urteko emakumea, banandua, 15 urte baino gehiagoko esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Bi zigorrrik eduki ditu (bat bere erruz), eta monobolumen bat dauka. (6) 55 urteko emakumea, 20 urteko gorako esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrrik eduki eta berlina ertain bat dauka. (7) 55 urteko gizona, 20 urteko gorako esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Bi zigorrrik eduki ditu (bat bere erruz), eta berlina ertain bat dauka.

idabaimena atera eta autoari heltzeko gogoz egoten da jendea. Demagun 18 urte dauzkagula, eta egoera horretan gaudela: badugu gidabaimena eta badugu autoa, baina aseguru falta zaigu. Arrisku orotakoa egingo dugula erabaki dugu, frankiziarik gabea. Leku askotan galdetzea gustatzen zaigu, eta Espainian aritzen diren 10 aseguru etxe nagusiekin jarri gara harremanetan. Zer esango digute? Bada, CONSUMER EROSKI-ri esan dioten gauza berbera: lau aseguru etxek ez dute eran-tzun, eta beste seiak zer-nolako eskaintzak egin dituzten ikusita, akaso autoa saldu beharko dugu aseguru ordaindu ahal izateko. Merkeenak 3.700 euro balio du, eta garestienak... 6.160 euro. Sei hiritan galdetu ditugu aurrekontuak, 540 guztira (A Coruña, Bartzelona, Bilbo, Madril, Sevilla eta Valentzia), merkatu-kuota handiena duten aseguru etxeetan, hain zuzen: Mapfre, Zurich, Liberty, Reale, Axa, Allianz, Groupama, Balumba, Línea Directa eta Direct Seguros (azken hirurek Internet bidez soilik jarduten dute).

Alderdi askoren arabera izaten da aseguruaren prezioa: esperientzia, adina, aseguruaren sexua, ibilgailua, poliza mota... Baina badira aintzat hartu beharreko beste zenbait alderdi ere. Hasteko, aseguru etxea bera. Batetik bestera, izan ere, bi halako edo hiru halako balio dezake aseguru mota bertsuak. Eta horrez gain, lekuak ere badu eragina: hiri batean edo bestean kontratatu, prezioa ez da bera, nahiz eta aseguru oso antzekoa izan. Guk aztertu ditugun 30 aukeretatik 16tan, % 20ko aldea egon da hiri merkeenetik garestienara; lautik batean, % 50eko aldea; eta kasu batean, % 96koa! hirugarrenen aseguru bat egin nahi izan dugu (erantzukizun zibilekoa) 30 urteko emakume batentzat; bost urteko esperientzia duela esan dugu, eta ibilgailu konpaktu baten jabe dela. Ezaugarri horiek aintzat hartzen dituen poliza 296 euro kostako litzateke Madrilen, eta 573 euro Bilbon.

Informazio hori biltzeko, **bederatzi erabiltzaile mota asmatu ditugu**: bost emakume eta lau gizon, 19 eta 55 urte artekoak. Gidari gazteenek ez dute eduki ez-behar-txostenik, eta 15 urtean baino gehiagoan gidatu dutenek, berriz, bi istripu izan dituzte (bat beren erruz eta bestearren erruz bigarrena), eta bi puntu gutxiago gidabaimenean. 19 eta 35 urte artean sortu ditugun bi erabiltzaile motek ibilgailu txiki eta konpaktuak erabili dituzte, eta adin gehiagokoek (40-55 urte), monobolumen bat edo berlina ertain bat. Azkenik, nerabe batek ziklomotor bat eduki du, eta 35 urteko heldu batek motorra, 125 zentimetro kubikoa. Gure teknikariak aseguru etxe batetik bestera ibili dira hautatu ditugun sei hirietan: bezero moduan aurkeztu dute beren burua, eta honako auto-aseguru hauen prezioak galdetu dituzte: hirugarrenen aseguru oinarritzkoa, hirugarrenen aseguru osatua eta arrisku orotakoa, frankiziaduna eta gabea. Eskatu ditugun 540 aurrekontuetatik (378 telefonoz eta 162 Internet bidez), 92tan ez digute aseguru eskaini, autoak eduki dituen ezaugarrietatik edo gidariaren adin

eta esperientzia urriarengatik.

Guk egiaztatu dugunez, oro har, prezioan dauden alde-ek badute eragina polizak eskaintzen dituen estaldura eta bermeetan. Merkatuko konpainiarik garestienek (Mapfre edo Liberty) eskaintzen dituzte **polizarik osatuenak** eta Interneten egiten direnek (Baluma, Direct Seguros, Línea Directa) estaldurarik txikiak. Hiriz hiri, Valentziak, Bartzelonak eta Madrilak dituzte tarifarik lehiakorrenak. Valentzian aurkitu ditugu, adibidez, batez bestekorik merkeenetakoak bederatzi gidari motetatik zortzirentzat; Bartzelona da merkeenetako bost gidari motarentzat, eta Madril hirurentzat. A Coruñan, Sevillan eta Bilbon garestiagoa da autoaren edo motorren aseguru egitea. A Coruña eta Sevilla, esaterako, garestienak izan dira bost gidari motarentzat, eta Bilbo, berriz, biren-tzat. Gidariaren adinak eta esperientziak behera egin ahala, bi joera antzeman ditugu: batetik, handitu egiten da gizonen eta emakumeen artean dagoen prezio-aldea, eta bestetik, aseguru etxek ez dute interes bera agertu (25 urtez beherakontzat eskatu ditugun hiru aurrekontuetatik bitan ez dute erantzun).

Aseguru 400 eurotik beherakoa denean, urtean behin ordaindu ohi da, baina hortik gorakoak zatika ere ordain daitezke. Erosotasun hori, hala ere, garesti irtetzen da zenbait konpainiatan. Groupama-k, adibidez, % 24 garestitzen ditu tarifak hiru hilez behin ordainduz gero, eta % 19 sei hilez behin eginez gero. Liberty eta Balumba-k ere berdin jokatzen dute, eta % 12-18 artean igotzen dituzte tarifak. Aitzitik, Axa-k eta Mapfre-k ez dute % 4 baino gehiago igotzen zatika ordainduta ere. Gainerako konpainiek (Reale, Zurich, Allianz, Línea Directa eta Direct Seguros), batez beste, % 8 baino gutxiago erantsten dute.

GIDARI HASIBERRIAK

Gidari hasiberriaren poliza egitea ez zaigu erraz gertatu. 18 urteko gidari batentzat eskatu dugu, SEAT Ibiza bat duena eta lehenago asegurutik eduki gabea. 60 dei edo galdera egin ditugu, eta % 43tan ez digute aurkeztu aurrekonturik. Lortu ditugun aurrekontuetan, hirugarrenen aseguru oinarritzkoa izan da merkeena (1.487 euro); aseguru hori bera, baina oinarritzkoa baino osatuagoa, 1.783 euroan ateratzen da, eta arrisku orotakoa, berriz, 4.800 euro balio du frankiziarik gabeak eta 3.200 euro frankiziadunak (214 eurokoak batez beste). Hori ikusita, beraz, adin eta esperientzia gutxi edukiz gero, gurasoetako baten izenean ere joango den aseguru egitea ateratzen da merkeen.

ZIKLOMOTOR ETA MOTORRAK

Ziklomotor batentzat ere eskatu dugu aseguru, 50 zentimetro kubikoko Yamaha JOG batentzat. Gidari hasiberriarekin gertatu zaigun bezala, hemen ere askok ez digute erantzun (60 dei edo galderetatik, 18k soilik aurkeztu digute aurrekontua). Balumba, Línea Directa, Direct Seguros, Liberty eta Reale konpainiek ez dute aseguru egiten ziklomotorrentzat, edo egiten badute >





HIRUGARRENEN ASEGURU OINARRIZKOAREN PREZIOAK, GIDARI MOTAREN ETA HIRIAREN ARABERA

Hiria	1 mota ⁽¹⁾	2 mota ⁽²⁾	3 mota ⁽³⁾	4 mota ⁽⁴⁾	5 mota ⁽⁵⁾	6 mota ⁽⁶⁾	7 mota ⁽⁷⁾
A Coruña	1.509	483	421	396	602	417	547
Bartzelona	1.358	454	364	565	372	422	475
Bilbo	1.361	486	451	573	572	485	578
Madril	1.356	415	360	296	440	362	430
Sevilla	1.598	413	361	526	397	330	420
Valentzia	1.645	462	380	532	415	437	535
Batez bestekoa	1.487	449	390	503	477	412	493

(1) 18 urteko gaztea, ezkongabea, ia esperientziarik ez duena eta ibilgailu txiki batentzat aseguru egin nahi duena lehen aldiz. (2) 25 urteko emakumea, ezkongabea, bi urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrik eduki bi urte horietan, eta auto txiki bat dauka. (3) 30 urteko emakumea, ezkongabea, bost urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrik eduki bost urte horietan, eta ibilgailu konpaktu bat gidatzen du. (4) 30 urteko emakumea, ezkongabea, bost urteko esperientzia duena, aseguru konpainia aldatu nahi duena eta aseguru-jabe bezala agertu (une horretan, familiako kide batekin partekatzen du poliza). Ez du zigorrik eduki bost urte horietan, eta ibilgailu konpaktu bat gidatzen du. (5) 40 urteko emakumea, banandua, 15 urte baino gehiagoko esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Bi zigor eduki ditu (bat bere erruz), eta monobolumen bat dauka. (6) 55 urteko emakumea, 20 urteko gorako esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrik eduki eta berlina ertain bat dauka. (7) 55 urteko gizona, 20 urteko gorako esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Bi zigor eduki ditu (bat bere erruz), eta berlina ertain bat dauka.

ere, honako baldintza hau jartzen dute: gidariak ez ditza eduki 25 edo 27 urte baino gutxiago. Aurkeztu dizkiguten aurrekontuen batez bestekoa eginda, hala-ko ziklomotor baten aseguru 824 euro kostako litzateke urtean (hirugarrenen poliza soilik eskaintzen dute). Merkeenetik garestienara, hala ere, izugarritzko aldea dago: 375 euro Axa-n eta 1.230 Mapfre-n.

Beste gidari mota batekin ere zaila gertatu zaigu aurrekontua eskuratzea. 35 urteko gizonetako batentzat eskatu dugu, 125 zentimetro kubikoko motor baten jabearentzat (Honda Passion bat dauka eta bost urteko esperientzia). Telefonoz eta Internetez dozena bat dei eta galdera egin ondoren, hirugarrenen aseguruak soilik eskaini dizkigute: urtean 197 euro balio du oinarritzkoak, eta 40 euro gehiago osatuak.

TARIFAK, SEXUKA

Uste zabaldua da emakumeei merkeago irtetzen zaiela autoaren aseguru. Gidari hasiberrietan eta gazteetan, aldea handi samarra da, baina urteetan aurrera egin ahala, txikitu egiten da. 25 urteko neska batentzat aurrekontua eskatu dugunean, hiru aldiz merkeagoa atara zaigu 18 urteko hasiberri batentzat eskatu dugunean baino. 55 urteko bi gidarientzat aurrekontua eskatu dugunean, aldiz, ez da alderik egon polizan; bat emakumea izan dela eta bestea gizona, hori baino ez. Kasu horretan, biek eduki dituzte ezbehar-txostenak (batean euren erruz gertatu zen istripua), eta berlina ertain baten jabe izan dira (Volkswagen Passat). Emakumeentzat, 412 euroan eskaini digute polizarik merkeena (hirugarrenen aseguru) eta 1.105 euroan garestiena (arrisku orotakoa, frankiziarik gabea). Gizonentzat, 493 euroan atara da lehena eta 1.157 euroan bigarrena.

ESTALDURAK

Ibilgailuen salmenta asko apaldu da azkenaldian kri-

HIRUGARRENEN ASEGURU OINARRIZKOAREN PREZIOAK, ZIKLOMOTOR ETA MOTORRENTZAT, GIDARI MOTAREN ETA HIRIAREN ARABERA

Hiria	8 mota ⁽¹⁾	9 mota ⁽²⁾
A Coruña	856	191
Bartzelona	1.061	206
Bilbo	780	194
Madril	931	196
Sevilla	639	181
Valentzia	807	209
Batez bestekoa	824	197

(8) 18 urteko gaztea, ia esperientziarik ez duena eta ziklomotorraren aseguru lehenengoz egin nahi duena. (9) 35 urteko gaztea, ezkongabea, bost urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrik eduki bost urte horietan, eta 125 cc-ko motorra dauka.

siaren eraginez, eta dezente urritu da aseguru etxeen merkatua; horrez gain, konpainia berriak ere sortu dira, eta horrek areagotu egin du euren arteko lehia eta prezio borroka. Diruaren auzia garrantzitsua da aseguru etxeen ere, baina ez zaio erreparatu behar horri bakarrik. Estaldurak ere berebiziko garrantzia du. CONSUMER EROSKI-k hamar aseguru etxe aztertu ditu (Espainian nagusi diren hamarrak), eta lau poliza mota: hirugarrenen aseguru oinarritzkoa, hirugarrenen aseguru osatua eta arrisku orotakoa, frankiziaduna eta gabea. Honako konpainiak hauek eskaini dituzte bermerik onenak: Allianz, Groupama, Liberty, Mapfre eta Reale. Hori neurtzeko, hirugarrenen aseguru oinarritzkoa eta osatua hartu ditugu aintzat bereziki, horiek direrako eskuragarrienak eta nahitaezko estaldurak eskaintzen dituztenak. Hirugarrenen aseguru oinarritzkoetan, guztiek hartzen dute barne nahitaezko erantzukizun zibila; horren bidez, asegurudunak ibilgailuarekin kalte-galerak sortu badizkio hirugarren bati, aseguru etxeak behartuta daude kalte-ordainak ematera. Kalte horien ordaina gehienez zenbatekoa izango den, hori Administrazioak finkatzen du: biktimei dagokien kopuru gehienezko bat jartzen du (gorputzean kalteak eragiten direnerako), eta berdin hondamenari dagokionez ere (ondasunei kalte egiten zaienerako). Horrez gain, borondatezko erantzukizun zibila ere gehitzen dute, estaldura hori handitzeko; izan ere, epaitegiek ezartzen dituzten kalte-ordainak, askotan eta askotan, handiagoak izaten dira hirugarrenen aseguruak izaten duten muga baino.

Aseguru mota horiek, besteak beste, barne hartzen dituzte kalteen erreklamazioa eta lege-defentsa (auzitegiatan sor dakizkiokeen defentsa gastuei erantzuteko), bai behintzat guk aztertu ditugun konpainia guztietan. Zenbaitek, lege-defentsaz gain, lege-laguntza ere sartzten dute (aseguruak estaltzen duenari buruzko lege aholkularitza). Hala egiten dute, esaterako, Groupama-k, Liberty-k eta Direct Seguros-ek. Zurich, Reale, Mapfre, Liberty, Direct Seguros, Balumba, Axa eta Allianz etxeek, bestalde, barne hartzen dituzte gidariari sor dakizkiokeen kalte pertsonalak.

Aseguru etxe baten eskaintzen artean, bezeroek arreta berezia jartzen diote bidaiako laguntzari, garrantzitsua izaten baita istripu bat edukiz gero, bai ibilgailuari egin dakizkiokeen kalteengatik, bai pertsonak jasan ditzakeenengatik. Estaldura hori, ordea, Línea Directa, Reale eta Balumba etxeetan soilik da aukerakoa.

Hirugarrenen aseguruaren, bada beste aukera bat ere oinarritzkoaz gain: hirugarrenen aseguru osatua. Oinarritzkoak eskaintzen dituen estaldura berberak ditu, eta horiez gain, aukera ematen du bezeroak beste batzuk hautatu ditzan, 'neurri-neurriko poliza' egin ahal izateko. Guk aztertu ditugun konpainietan, estaldura osagarri hauek izan dira ohikoenak: suteen aurkakoa, beira-hausturen aurkakoa eta lapurreten aurkakoa (ebasketen edo bortxarrik gabeko lapurreten aurkakoa ere eskaintzen dute zenbaitek, baina beste

batzuetan ezin da jakin hori ere barne hartzen duten, 'legez kontra ebatsiaren ordaina' baino ez dutela emango esaten baitute). Estaldura horietan oinarritzkoak eta osatuak daude; kalte-ordainak handiagoak dira osatuan, eta estaldura orokorretik kanpo geratzen diren arrisku batzuk ere barne hartzen ditu. Konpainia bakoitzak bere erara konbinatzen ditu estaldura horiek, baina hauek izaten dira ohikoenak: hirugarrenen aseguru eta beirak; hirugarrenen aseguru, sutea eta beirak; hirugarrenen aseguru, lapurreta eta sutea; eta hirugarrenen aseguru, beirak, sutea eta lapurreta.

Puntuakako gidabaimena indarrean sartu zenetik, 2006. urte erditsutik, aldaketa horrek sor ditzakeen gorabehera batzuei erantzuteko zerbitzuak eskaintzen dituzte aseguru etxeek; batzuek diru sari bat ematen dute puntuak galduz gero (1.350 eurorainokoa Reale-k eta 4.380rainokoa Allianz-ek), besteek matrikula ordaintzen diote gidariari puntuak berriz eskuratzeko ikastaroak egin ditzan (Allianz, Groupama, Liberty, Mapfre, Reale eta Zurich). Aztertu ditugun hamar aseguru etxeetatik seitan, isunen defentsa edo errekurtsioak ere eskaintzen dituzte (Balumba, Direct Seguros, Groupama, Liberty, Mapfre eta Reale), eta Allianz-en, isunetarako lege-aholkularitza.

Aseguru motarik garestiena arrisku orotakoa da, frankiziaduna edo gabea. Halako bat hartu aurretik, ongi irakurri beharra dago zer dioen polizaren letra txikiak, salbuespenak eta berezitasun batzuk aipatzen baitituzte han. Hona hemen adibide bat: bide desegokietatik goazela sortzen bazaizkigu kalteak, zenbait aseguru etxeek ez diote horri erantzuten. Groupama, Zurich, Liberty eta Línea Directa etxeek, adibidez, ohiko bideetan sortzen diren kalteak soilik hartzen dituzte aintzat, "sarbide legezko eta irekia" dutenetan. Gainerako guztiek, ordea, bide mota guztietan bermatzen dute estaldura, betiere garabia iristeko moduko lekua bada eta ez badu arriskuan jartzen laguntza-zerbitzuen lana. Motorren eta ziklomotorrentzat, berriz, hirugarrenen aseguru oinarritzkoa baino ez dute eskaintzen gehienek, eta ohiko estaldurak: erantzukizun zibila (nahitaezkoa eta borondatezkoa), kalteen erreklamazioa, lege-babesa, gidariaren istripuak eta bidaiako laguntza. Berme horiek handitu nahi dituenarentzat, lapurreten eta suteen aurkako gehigarria eskaintzen dute, galera erabatekoei eran-tzungo diena ere bai eta norberaren kalteak barne hartuko dituen; horiez gain, diru saria jasotzeko aukera ere ematen dute gidabaimeneko puntu guztiak galduz gero, eta isunen aurkako errekurtsioak jartzeko zerbitzua ere kontratatu liteke.

ERABATEKO HONDAMENA

Ibilgailu bat lapurtzen badute, sua hartzen badu edo istripu larri batean kalteak jasaten baditu, aseguru etxeek erabat hondatutzat jotzen dute jabeari ez bazaio erabilgarri. Konpainia guztiek ez diote berdin erantzuten egoera horri, baina, oro har, ibilgailuak urtebete egin arte, berriaren balioa ematen diote (matrikulazio >

urtea hartzen dute aintzat, eta orduan zuen balioa).

Guk aztertu ditugun hamar konpainietan, ibilgailuak urtebete baino gutxiago edukiz gero, haren balioa oso-oso erabiltzen diote asegurdunari, salbu Groupama-k eta Balumba-k; bi horietan, ibilgailua berria erosi bada edo merkealdiko prezioan, erosi zen unean zeukan prezioa hartzen dute aintzat. Axa, Direct Seguros, Liberty, Línea Directa, Reale eta Zurich etxeek ere irizpide hori erabiltzen dute ibilgailuak bi urte bete arte (Mapfre-k ere badu aukera hori, baina berriaz eskatu behar da, gehigarri moduan eskaintzen baitute). Balumba-k, bigarren urtetik aurrera, salgai jarriz gero edukiko lukeen balioa ematen dio ibilgailuari. Allianz-ek, berriz, bigarren urtetik aurrera, eta honela jokatu du: bigarren urtetik bosgarrena bitarte, merkatu-balio hobetua ematen dio ibilgailuari; hau da, ibilgailuak berri-ritan duen balioetik abiatu eta horri % 1 kentzen dio bigarren urte horretatik aurrera igaro den hilabete bakoitzeko. Hirugarren edo laugarren urtetik aurrera, ibilgailuak merkatuan duen balio hartzen dute aintzat konpainia guztiek, edo bestela, salgai jarriz gero izango lukeen balioa (saltzeko balioa).

Aseguru etxeren polizetan, *merkatu-balioa* edo *saltzeko balioa* kontzeptuak ageri dira. Hau da, ezbeharra gertatu den garaian ibilgailu hori bera erosteko beharko litzatekeen dirua emango igute (ezaugarri eta urte kopuru berbera litzuzkeen ibilgailu bat erosteko behar den dirua). Saltzeko balioari buruz ari direnean, berriz, beste alderdi bati erreparatu diote: ibilgailuak zer balio izango lukeen istripua gertatu den garaian salgai jarriz gero; kasu horretan ez du axola izaten zenbat kilometro dituen edo nola zaindua dagoen. Bi kontzeptuen artean % 20tik gorako aldea ere egon liteke. Polizak merkatu-balioa hartzen badu aintzat, asegurdunak kalte-ordain handiagoa jasoko du bestela baino.

ARRISKU OROTAKO ASEGURUAREN PREZIOAK (FRANKIZIA GABEAK), GIDARI MOTAREN ETA HIRIAREN ARABERA

Hiria	1 mota ⁽¹⁾	2 mota ⁽²⁾	3 mota ⁽³⁾	4 mota ⁽⁴⁾	5 mota ⁽⁵⁾	6 mota ⁽⁶⁾	7 mota ⁽⁷⁾
A Coruña	4.110	1.576	1.035	1.318	1.498	1.099	1.120
Bartzelona	4.871	1.020	953	1.079	971	1.137	1.150
Bilbo	4.390	1.220	1.018	1.080	1.383	1.080	1.201
Madril	5.118	1.315	973	1.276	1.160	1.098	1.084
Sevilla	4.368	1.373	903	956	1.141	979	1.116
Valentzia	5.019	1.267	1.184	1.461	1.418	1.238	1.278
Batez bestekoa	4.772	1.286	1.009	1.213	1.258	1.105	1.157

(1) 18 urteko gaztea, ezkongabea, ia esperientziarik ez duena eta ibilgailu txiki batentzat aseguru egin nahi duena lehen aldiz. (2) 25 urteko emakumea, ezkongabea, bi urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrak eduki bi urte horietan, eta auto txiki bat dauka. (3) 30 urteko emakumea, ezkongabea, bost urteko esperientzia duena eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrak eduki bost urte horietan, eta ibilgailu konpaktu bat gidatzen du. (4) 30 urteko emakumea, ezkongabea, bost urteko esperientzia duena, aseguru konpainia aldatu nahi duena eta aseguru-jabe bezala agertu (une horretan, familiako kide batekin partekatzen du poliza). Ez du zigorrak eduki bost urte horietan, eta ibilgailu konpaktu bat gidatzen du. (5) 40 urteko emakumea, banandua, 15 urte baino gehiagoko esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Bi zigorrak eduki ditu (bat bere erruz), eta monobolumen bat dauka. (6) 55 urteko emakumea, 20 urtetik gorako esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Ez du zigorrak eduki eta berlina ertain bat dauka. (7) 55 urteko gizonea, 20 urtetik gorako esperientziarekin eta aseguru konpainia aldatu nahi duena. Bi zigorrak eduki ditu (bat bere erruz), eta berlina ertain bat dauka.

Guk aztertu ditugun konpainia guztietatik, bik baino ez dute hartzen aintzat merkatu-balioa, Allianz-ek eta Mapfre-k. Gainerakoek, saltzeko balioari heltzen diote.

OSAGARRIAK ETA GEHIGARRIAK

Aseguruak, oro har, ibilgailuak berez dakartzan elementuak hartzen ditu barne, baina gidariak beste batzuk ere erantsi nahi badizkio polizari (GPS, MP4...), berriaz jakinarazi beharra dauka, eta aseguru garestitu egingo zaio, jakina. Hori gertatzen da, adibidez, Zurich, Direct Seguros, Línea Directa, Liberty, Mapfre eta Groupama etxeekin. Allianz-ek, barne hartzen ditu osagarri horiek; Axa-k, muga bat jartzen dio horien estaldurari (900 euroko kalte-ordaina ematen du gehienez). Eta Balumba-k auto ekoizleak instalatutako osagarriak soilik hartzen ditu kontuan. Allianz, Axa, Reale eta Zurich etxeek berriaz esaten dute aseguruak barne hartzen dituela ekipajea eta norberaren gauzak (maletak, arropa, oinetakoak eta garbitzeko eta kosmetikako gaiak, baina sekula ez dirua, titulua edo bixiak). Azken bi konpainiek muga bat jartzen diote elementu horiengatik ematen duten kalte-ordainari: 300 euro arterainokoa izan daiteke. Axak, gainera, autoaren giltzak desagertzeagatik ere ematen du kalte-ordaina, nahiz eta hori izan ebatsi diguten gauza bakarra.

HOBARIAK ETA ZIGORRAK

Hobariak (edo bonus-malus sistemak) eragina dute polizaren prezioan. Aseguruek saritu egiten dituzte ezbeharrik eduki ez duten gidaria eta zigortu ezbeharren bat eduki dutena. Hau da, urtea igaro eta poliza berri-ritzeko garaia iristen denean, gidariak ezbehar-txostenik aurkeztu ez badu, konpainiak merkatu egiten dio poliza. Bestela gertatzen bada, aseguru garestiago irtingo zaio, gehigarri bat ezarriko baitiote ezbeharrengatik.

Merkaldi hori kalkulatzeko hobariak % 55 eta % 65 artean ibiltzen dira, gehienez, beti ere, gidariak izan dituen istripuen arabera, jakina. Normalean merkaldia izateko bost edo hamar urte pasatu behar izaten dira baina guk aztertu ditugun hamarretan aseguru-etxea aldatuta ere, errespetatu egiten zaizkio gidariari hobariak. Kontuan izan behar da, hobariak, orohar, ibilgailuaren balio-jeitsierarekin duela harremana.

Gure azterketan egiaztatu ahal izan dugunez, hamar konpainia horiek ezartzen dituzten zigorrak ez diote eragiten hobarien portzentaje osoari, ezpada zati bati; eta zigorrak ezartzen dituztenean, honako alderdi hauei dagozkien ezbeharrengatik ezartzen dituzte gehienetan: nahitaezko erantzukizun zibila, borondatezkoa, eta norberak jasan dituen kalteak. Lapurretan, suteen eta beira-hausturen aurkako bermeak erabiltzen badira, zigorrak ezartzen dituzte Direct Seguros, Liberty, Línea Directa, Mapfre eta Zurich konpainiek, eta errua gidariarena bada, baita Balumba-k eta Direct Seguros-ek. //



- + Batez bestekoaren mailan daude prezioak. Hirugarrenen aseguru oinarrikoak isunetarako laguntza barne hartzen du. Gainera, bi urte baino gehiago dituen ibilgailu bat gultzat hondatuz gero, merkatu-balio hobetua hartzen du aintzat kalte-ordaina ematerakoan, eta ez saltzeko balioa.
- Aseguru zatika ordaindu nahi izanez gero, batez bestekoak baino gehiago igotzen du tarifa: % 10 garestiagoko ateratzen da, eta batez bestekoa % 8koa da.



- + Aseguruaren kuotak hiru hilez behin edo sei hilez behin ordainduz gero, ez da % 4 baino gehiago garestitzen (batez bestekoa % 8koa da). Bideko laguntzan, garabiak ordubete pasatu badu azaltzeko, konpainiak 60 euroko kalte-ordaina ematen du, eta zigorrak ezartzerakoan, erantzukizun zibila nahitaezkoa eta borondatezkoa baliatzen denean soilik ezartzen ditu. Ibilgailua batetik bestera eramaterakoan, ez du jartzen kilometro mugarik.
- Zenbait polizaren prezioak gainerako konpainien batez bestekoaren goitik daude. Hobariei eusteko, honako baldintza hau jartzen du: istripuak ez kalterik eragin izana hirugarrenei eta ibilgailua marka horretako garaje konpontzea.



- + Aztertu ditugun konpainia guztietatik, hau izan da merkeenetakoa. Hirugarrenen aseguru osatua, isunen defentsa egiteko edo helegitea jartzeko zerbitzua eskaintzen du, eta diru saria ere bai puntukako gidabaimena kenduz gero (gehienez, 3.600 euro ematen ditu).
- Bezeroek zalantzaren bat edukiz gero edo zerbait galdetu nahi izanez gero, telefonoz, posta elektronikoz edo faxez soilik egin dezakete. Aseguruaren kuotak hiru edo sei hilez behin ordainduz gero, % 12 garestitzen ditu. Ez du motorren eta ziklomotorren aseguruak.



directseguros

- + Zatika ordainduta ere, ez da % 3 baino gehiago garestitzen (etxe honek ezartzen du goerarik txikiena alderdi horretan). Gainera, aztertu ditugun konpainietatik, hau izan da merkeenetakoa. Autoa irauli edo norabait eroriz gero, aseguruak barne hartzen du handik ateratzea, 1.000 euroko mugarekin (beste guztiek apalagoa dute muga hori).
- Bezeroek zalantzaren bat edukiz gero edo zerbait galdetu nahi izanez gero, telefonoz, posta elektronikoz edo faxez soilik egin dezakete.



- + Bideko laguntzan ekipajea bilatzeko zerbitzua eskaintzen du, atzerriko epaitegiek ezarritako bermeen diru kopurua aurreratzen du eta lege-defentsako gastuei erantzuten die. Batez bestekoaren mailako prezioak eskaintzen ditu.
- Aseguru zatika ordaintzeagatik, honek garestitzen du gehien poliza: % 19 hiru hilez behin ordaintzeagatik eta % 24 sei hilez behin ordaintzeagatik.



- + Hondamendi erabatekoa gertatuz gero, ibilgailua berrituz jotzen dute hiru urte bete artean. Hirugarrenen aseguru oinarrikoak barne hartzen du isunen defentsa.
- Aztertu ditugun konpainia guztietatik hau izan da garestienetakoa, eta zatika ordaintzeagatik gehien garestitzen denetakoa ere bai (% 18 hiru hilez behin ordainduta eta % 10 sei hilez behin). Ez dauka hobariak emateko sistema finkatu bat. Ezbeharren bat edukiz gero, alderdi askori erreparatu diote zigorra jartzeko orduan: nahitaezko erantzukizun zibila eta borondatezkoa, norberak jasandako kalteak, sutea, lapurreta, beirak, lege-defentsa, kalteen erreklamazioa, istripu pertsonalak eta gidabaimena kendu ondorengo diru saria; ezbeharrek alderdi horietakoren bati eragiten badiot, zigorra ezartzen diote gidariari.



lineadirecta.com

- + Aseguru etxe merkeenetakoa. Bideko laguntza emateko zerbitzuak ez badu autoa 30 minuturen buruan konpontzen, asegurdunak nahi duen garaje edo lekura eramaten dute.
- Bezeroek zalantzaren bat edukiz gero edo zerbait galdetu nahi izanez gero, telefonoz, posta elektronikoz edo faxez soilik egin dezakete. Hirugarrenen aseguru oinarrikoak ez du barne hartzen lege-laguntza. Autoa irauli edo norabait eroriz gero, 300 euroko muga ezartzen du ibilgailua handik atera ahal izateko.



- + Aseguru zatika ordainduta ere, ez da % 3 baino gehiago garestitzen (gutxien garestitzen denetakoa da). Bezeroek % 60rainoko hobaria lor dezakete (handienetakoa da guk aurkitu ditugunetan). Hirugarrenen aseguru osatuak barne hartzen ditu norberak jasandako kalteak, konponketa-maila guak, gidariaren aseguru eta isunen defentsa, besteak beste. Aseguru mota asko eskaintzen ditu.
- Hau izan da aseguru etxerik garestiena ia gidari mota guztientzat eta ia hiri guztietan. Hirugarrenen aseguru oinarrikoak ez du barne hartzen lege-laguntza.



- + Diru saria ematen du puntukako gidabaimena galduz gero (1.350 euro, gehienez ere). Bideko laguntzan, autoa lekuan bertan konpontzeko zerbitzua eskaintzen du, 600 euroko mugarekin.
- Aseguru etxerik garestienetakoa da, eta poliza % 10 garestitzen du zatika ordaintzen bada (batez bestekoa % 8koa da).



- + Autoa irauli edo norabait eroriz gero, handik atera ahal izateko zerbitzua eskaintzen du, 450 euroko mugarekin.
- Aztertu ditugun konpainietatik, garestienetakoa izan da hau.